

Ekonomia solidarioa

Carlos Askunze Elizaga¹

Gaur egun, globalizazioak —mundua errealitate integratuagoa eta elkarren mendekoagoa bihurtzen duten prozesu teknologiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen multzoak, alegia— oso lotura estua du ideologia neoliberallean oinarritutako eredu ekonomiko eta politiko jakin batekin eta kontsumo neurrigabeen, dena pilatu nahian, muturreko individualismoan eta kultur uniformetasunean oinarritutako bizi-eredu jakin batekin. Sistema horrek helburu bihurtu du ekonomia —eredu eta jardun ekonomiko neoliberalak hain zuzen—, bestelako ikuspegi etikoak baztertuz eta pertsonen beharrak asetzeari, multzoen ongizateari eta gure planetaren giza garapen iraunkorrari muzin eginez.

Nabarmen-nabarmena da horren ondorioz mundu erabat bidegabe, desorekatu eta jasanezinean bizi garela. Gure mundu honetan, pertsona, sexu, etnia eta herrien arteko bereizkeria gero eta handiago da, eta erabakien gaineko kontrol demokratikoa edo teknologiak, ezagutza eta oinarritzko gizarte-zerbitzuak erabiltzeko aukerak munduko biztanle gutxi batzuen esku dago bakarrik. Hala, pertsona eta herri aberatsen eta pertsona eta herri pobretuen arteko aldea handituz doa eta gizarteko sektore asko, emakumeak, gazteak eta adinekoak bereziki, baztertuta eta estutasunean bizitzeko arriskuan daude.

Nolanahi ere, egoera horrek irauteak ez du justifikaziorik eta ez da aldatu ezineko zerbait. Gurean nagusitu den eredu politiko, ekonomiko eta kulturalaren isla baino ez da eta, hori besterik ez denez, aldatu egin daiteke ekintza kolektiboaren bidez, pentsaera kritikoa sortuz eta bestelako praktika batzuk landuz. Ekonomia solidarioak eraldaketa horretan laguntzeko begirada, balioak eta praktikak eskaintzen ditu, hain zuzen ere, mundu-mailako gizarte-mugimendu bat eratuz, gizarte eta mundu orekatuagoa, humanoagoa eta iraunkorragoa lortzeko herri- nahiz mundu-mailan diharduten herritarren erakundeen multzoari gehitzen zaiona bere ezaugarri berezietan.

Bideragarria al da bestelako ekonomia alternatibo eta solidariorik?

Ekonomia solidarioaren abiapuntua ekonomia neoliberalaren oinarrian dagoen lehentasun-sistemaren ikuspegi alternatibo batean dago. Eredu alternatibo horretan, ekonomia helburu bat beharrean bitarteko bat dela esaten da, pertsonak eta komunitateak garatzen eta jendearen eta haien gizarte-ingurunearen bizi-kalitatea hobetzen lagundu behar duen bitarteko bat. Ikuspegi horrek pentsamenduaren eta jardura ekonomikoaren ikusmolde etiko eta humanista bat du azpian, pertsona eta komunitatea kokatuz garapenaren erdi-erdian.

Ikuspegi horren arabera, ekonomia solidarioa eraldaketarako tresna bat da, gure munduko jardura ekonomikoaren bitarteko ereduaz guztiz bestelakoa. Pertsonen, haien beharrei, gaitasunei eta lanari

Ekonomia: lehentasunen sistema

	Betiko ekonomia	Ekonomia solidarioa
Helburua	Ahali eta etekin handiena	Pertsonen bizi-kalitatea
Bitartekoak	Giza baliabideak	Errentagarritasun ekonomikoa

kapitalaren eta kapital-metaketen gaintik dagoen balioa ematen die, eredu sozio-ekonomiko orekatuagoa eta gehiago banatzen duena aldarrikatuz. Ikuspegi horrek helburu zehatz batzuetara bideratutako balio eta jardun multzo zehatz bat biltzen du. Hauek dira helburu horiek: jendea eta herritarren erakundeak jabetzea eta indartzea, lehia beharrean lankidetzan oinarritutako harremanak bultzatzea, erabakiak hartzeko garaian eredu demokratikoak garatzea, ekologia babestea, aberastasunak eta finantza-tresnak baldintza etikoetan sortzea, baztertutako pertsona eta kolektiboen gaitasunak indartzea, berrikuntza sozio-ekonomikoa herri-garapenera bideratzea, etab.

Ekonomia solidarioa gizarte-mugimendu bat bezala garatu da azken hamarkadetan, eta mundu osoan zehar ekonomiaren alderdi guztien inguruan —ekoizpena, finantzazioa, merkataritza eta kontsumoa— bestelako pentsaera eta jardun alternatibo eta solidarioa bultzatzen duten erakunde eta jarduerak biltzen ditu. Ondo zedarritutako sektore berezia da hau (hirugarren sektorea edo ekonomia soziala bezalako sektore edo esparru zabalagoen baitan), nazioartean gero eta oihartzun handiagoa duena, gainera.

Esparru horretan hauek denak sartzen dira: enpresa solidarioak eta lan-munduratzekoak, ekimen sozialeko kooperatibak, helburu sozialeko jarduerak ekonomikoak egiten dituzten elkarte eta fundazioak, hirugarren sektoreko lan-sozietateak, bidezko merkataritza, merkataritza solidarioa edo ekologikoa bultzatzen duten ekimenak, enpresa solidario berriak bultzatzen dituzten erakundeak... Mugimendu hau lan-egitura batzuk garatzen ari da herri-, erregio- eta mundu-mailan, eta askotan hutsaltzat edo oso mugatutzat jotzen diren esperientziak gizartea aldatzeko eta bestelako eredu sozio-ekonomiko bat sortzeko lagungarriak izatea da bere erronka nagusia.

Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren printzipioak

Hauxe da ekonomia solidarioa: gizakiaren garapen integrala ekonomiaren xedetzat hartuta, jardun solidario, parte-hartzaile, humanista eta irabazi asmorik gabekoen bidez, banaka nahiz taldeka, garatzen den sistema sozio-ekonomikoa.

Elkarte, enpresa, ekonomia nahiz finantzen alorrean, printzipio hauekin bat etorritik egiten diren ekimen guztiak sartzen dira ekonomia alternatiboaren barruan:

1. *Berdintasuna*. Harremanetan berdintasuna bultzatzea eta enpresaren edo erakundearen jardueretan dabilzan pertsona guzti-guztien interesei modu orekatuan erantzutea.
2. *Lana*. Lanpostu egonkorak sortzea, gizarte-bazterketa jasateko arriskua dutenak edo egoera horretan daudenak lan-munduratzeko lagunduz bereziki, pertsona guztiei lan-baldintza eta soldata duinak ziurtatuz, haien garapen pertsonala eta erantzukizunak hartzea bultzatuz.
3. *Ingurumena*. Ingurumena kaltetzen ez duten ekintzak, produktuak eta ekoizteko metodoak bultzatzea.
4. *Lankidetzak*. Erakundearen barruan eta kanpoan lankidetzak sustatzea, lehia beharrean.
5. *Irabazi asmorik ez*. Ekimen sozialen helburu nagusia gizakien eta gizartearen sustapena da, eta, hortaz, ez dute irabazi asmorik. Irabazitakoa gizartera itzultzen da proiektu sozialen bidez, edo beste ekimen solidario nahiz garapenerako lankidetzak-proiektu batzuetara bideratzen da, bestela.
6. *Ingurunearekiko konpromisoa*. Ekimen solidarioek gauzatzen diren gizarte-ingurunearekiko konpromisoa dute eta, horregatik, beste erakunde batzuekin lankidetzan jardun eta sareetan parte hartu behar dute, elkartasun-esperientzia zehatzek bestelako eredu sozio-ekonomiko bat sortu ahal izateko bidean.

Gehiago jakiteko:

- www.economiasolidaria.org
REAS - Ekonomia Alternatibo eta Solidarioko Sareen Sarea.
- www.ripess.net
Ekonomia Soziala eta Solidarioa bultzatzeko Kontinente arteko Sarea.
- www.socioeco.org
Ekonomia Solidarioaren Poloa.

Enpresa solidarioak

Enpresa-jarduerak sortu eta kudeatzeko garaian, betikoaz bestelako eredu bat proposatzen du ekonomia solidarioak. *Enpresa solidarioak* direlakoak bultzatzen dira, beren jarduera gainerako enpresen antzera jorratzen duten irudi juridiko merkantileko erakunde batzuk, baina goian aipatutako printzipioak dituztenak. Enpresen alorrean ere, jarduera ekonomikoa jarduera hori jorratzen duten komunitatearen eta pertsonen zerbitzura dagoen bitarteko bat bezala ulertzen da.

Enpresa horiek, beharrezko errentagarritasun, eraginkortasuna eta iraunkortasun tekniko eta finantzarioa ahaztu gabe, ahalik eta irabazi gehien eskuratzeko grina eta, langileen garapena beharrean kapitala, pilatzea beste helbururik ez duen eta enpresak bere helburuak lortzeko gizartean nahiz ingurumenean eragindako kalteei muzin egiten dien eredu produktibista baztertzen ditu. Ikuskera horretan, enpresa gizarteari mesede egitera eta jendearen bizimodua hobetu eta garapena lortzera bideratuta dago.

Besterik ezin zuen eta era honetako enpresek alderdi hauek bultzatzen dituzte kudeaketa alorrean: autonomia eta berdintasuna sustatzea, parte-hartzea eta kooperatiben bidez aritzea, soldata-eskala bidezkoak eta proportzionalak finkatzea, gardentasuna eta ikuskapen soziala, ingurumen eta gizarte aldeko iraunkortasuna, etab. Irabazi asmorik gabeko enpresa-jarduera hauetan irabaziak ez dira akziodunen artean banatzen. Irabazirik egotekotan, lanpostu berriak sortzeko, egitura teknikoa hobetzeko eta gizartearentzat onuragarriak diren ekimen berriak bultzatzeko berrinbertitzen dira.

Ez da harritzekoa, beraz, proiektu hauetako asko ingurumena ez kaltetzeaz gain mesede egiten dioten sektoreetatik sortzea. Hala, egitasmo hauetan birziklatzea eta berrerabilteza bultzatzen da kontsumo neurrigabea duten gizarteetan, nekazaritza ekologikoaren baitako ekoizpen-eredu berriak sustatuz. Beste asko krisi ekonomikoek eta desegituraketek nahiz gizarte-bazterketak kolpatutako komunitateetan sortutako egitasmo sozialak dira, eta sektore ahulenei zuzentzen zaizkie: emakumeei eta gazteei, alegia. Beste batzuk, aldiz, lana ulertzeko eta baliabide ekonomikoak lortzeko beste modu bat probatu nahi duten pertsonak bat egitean sortu ziren, lankidetzako eta elkartasunezko printzipio sozialak oinarritzat hartuta. Gaur egun milaka eta milaka ekimen ekonomiko sozial ari dira ondasunak eta zerbitzuak eskaintzeko era guztietako jarduerak lantzen.

Halako ekimenez gizarte-bazterketa jasaten duten edo jasateko arriskua duten sektoreei zuzentzen zaizkie bereziki, eta enpresak pobreziaren aurka borrokatzeko eta jendea gizarteratzeko tresna erabilgarriak dira ekimen hauen barruan. *Gizarteratze-enpresak* nabarmentzen dira hemen, gero eta onarpen handiagoa baitute Europako gizarte eta legeetan. Enpresa hauek gainerakoetatik bereizten dituzten ezaugarriak hauek dira: bitarteko egiturak dira, egoera kaskarrean dauden kolektiboak lan arruntetan lan-munduratzeko laguntzen dietenak, lanpostu batean trebatuz eta laguntza sozio-laborala emanez. Enpresa hauek esku-hartze sozialeko eta gizarteratze-politiketan dute jatorria eta "ekonomiaren bidezko txertatzea" dute helburutzat. Izan

ere, azken urteotan ikusi denez, halako ekimenak oso eraginkorrak dira zailtasun handiak dituzten pertsonak lan-munduratzeko.

Bestalde, enpresa hauek zenbait lurraldetan lan egiteko laguntzak jasotzen dituzten arren, hainbat ikerketak erakutsi dutenez, enpresa hauek sortzen dituzten fluxu ekonomikoak (merkataritza-jardueragatiko diru-sarrerak, gizarte-segurantza eta jarduerari dagozkion zergak) bai eta gizarteratze alorrean diharduen pertsona bakoitzeko aurrezpen publikoa (kostu sozial txikiagoa zerbitzuetan eta errenta pasiboetan), ekonomikoki eta sozialki errentagarriak direla erakusten duten hainbat onura sortzen ditu.

Gehiago jakiteko:

- www.aeress.org
Espainiako Ekonomia Sozial eta Solidarioko Berreskuratzaileen Elkarteak.
- www.fedei.org
Espainiako Gizarteratze Enpresen Federazioa.
- www.catalogosocial.net
EAEko Gizarteratze Enpresak eta Enpresa Solidarioak.
- www.ensie.org
Europako Gizarteratze Enpresen Sarea.
- www.ica.coop
Nazioarteko Kooperatiben Aliantza.

Banku etikoak eta finantza alternatiboak

Eredu ekonomikoa aldatzeko ere finantza alorreko tresna etiko eta solidarioak behar dira. Diruaren balio soziala berreskuratu eta komunitatea eraldatzeko eta garatzeko erabili behar dugu, errentagarritasun ekonomikoa eta onura humanoa, soziala eta ingurumenekoa bateragarri eginez, printzipio etikoetan oinarritutako sistema eta jardunbide finantzarioak bultzatuz.

Ekimen hauen bidez, ikuspegi etikoa txertatu nahi da finantza-sisteman. Aurrezkiak bideratzen dituzten erakunde, bitarteko eta merkatu guztiak sartzen dira sistema horretan, eta herritarrek eta gizarte-erakundeek kontrolatutako alternatiba bideragarri eta demokratikoak eskaini nahi zaizkio sistema horri.

Finantza alorreko bitartekaritzan, ekimen asko eta asko egin dira, mailegu solidarioak edo mikrokreditu sozialen kudeaketa, adibidez. Dena den, herritarren erakundeen artean gero eta zabalduago dago banku-erakundeak irekitzeko asmoa. Halakoetan, betiko bankuen zerbitzu berdina eskainiko lirarteke, baina irizpide etikoak izanik eta gizartearekiko erantzukizunez jokaturik. Herri-mailan nahiz nazioartean diharduten hainbat banku etiko daude gaur egun.

Betiko bankuetan ez bezala, banku etikoetan gizartea eraldatzea da helburua. Horregatik, kapitalak eskuratzeko, inbertitzeko eta maileguak emateko eragiketarik filosofian integral batean oinarrituta eta justiziara bideratutako helburu etiko batzuen arabera egiten dira. Ikuspegi horri jarraiki, hauek dira banku etikoen helburuak:

- Gizartean eragin ona eta eraldatzailea duten jarduerak ekonomikoak finantzatzea. Hau da, enpresa, jarduerak eta egitasmo sozial, ekologiko, kultural eta solidarioak laguntzea, giza garapena bultzatuz Iparreko nahiz Hegoko gizarteetan, eta dirua baztertuen eta haiekin lan egiten duten erakundeen esku utziaz.
- Aurrezki eta inbertsio arduratsuak egiteko tresnak eskaintzea. Herritarrei aukera eman nahi zaie beren aurrezkiekin halako proiektuak bultzatzeko, finantza-erakundeak aurrezki horiek zertarako erabiliko dituen arduraz erabakiz, eta injustizia edo munduaren hondamena iraunarazten duten jarduerak edo enpresetan

(armen salerosketa, langileen esplotazioa, ingurumenaren suntsiketa) inbertitu gabe.

Finantza-bitartekoen alorrean, azken urteotan frogatu diren zenbait formula alternatiboren hedapena eta garapena aipatu beharra daukagu, hala nola, *Diru osagarriak* (*diru sozialak* eta *lokalak* izenez ere ezagutzen direnak), dirurik gabeko truke-jardueren sustapena (*denbora-bankuak*, adibidez) edo *jakintzak trukatzeko* ekimenak. Bestalde, *aholkularitza etikoa* delakoa hedatzen ari da finantza-merkatuen alorrean. Enpresak eta jarduera ekonomikoak hainbat irizpide sozialen arabera sailkatzeko behar den informazioa eskuratzen lan egiten dute aholkularitza horiek, inbertsio etikoak eta aurrezkien erabilera arduratsua bultzatzeko.

FIARE eta banku etikoen proiektua

2003an FIARE (Inbertsio eta Aurrezpen Arduratsua Fundazioa) sortu zen EAEn. Gaur egun, Italiako Banca Popolare Eticako finantza-eragile bezala jarduteaz gain, herri-mailako zenbait ekimen bultzatzen ari da, 2010erako denek bat egin eta kreditu-kooperatiba bat sortzeko Espainiako Estatuan. Kooperatiba horrek irizpide solidarioak eta betiko banku-sistemak darabilenak ez bezalako printzipioak izango lituzke. Banku etikoen ikuspegitik, finantza-erakunde autonomo bezala aritzeko baimena eskatuko du erakunde horrek, eta hauek izango dira bere ezaugarri nagusiak:

1. *Kredituak justiziaren zerbitzura*. Egitasmo honen zutabe garrantzitsuenetako bat kredituen bidez gizartea aldatu eta jendea gizarteratzeko asmoa da. Horrela, bere finantza-jarduerak lantzeko esparru nagusiak hauek izango dira: garapenerako lankidetzak, gizarte-bazterketa jasaten duten edo jasateko arriskua duten pertsonen gizarteratzea, ingurumenaren iraunkortasuna bultzatzen duten proiektuak, elkartasunean eta eraldaketan oinarritutako balio sozialak eta pentsaera sortzeko eta zabaltzeko egitasmoak.
2. *Finantza alorreko bitartekaritza herritarren sareetatik*. Proiektu honen bidez ase nahi diren beharrak ezin dira kredituan oinarritutako finantza-laguntzen bidez konpondu soilik. Gizarte zibileko sare eta erakundeek bat egin behar dute, denen artean gizartea aldatzeko. Herritar-sare aberatsari laguntzeko sortu da egitasmo hau, eta sare horretan oinarritzen da. Horregatik, bat egiten du ekonomia solidarioaren alorreko gizarte-mugimenduen helburuekin: bidezko merkataritza, gizarteratze-enpresak, enpresa sozialak, garapenerako lankidetzak eta justiziaren alde diharduten sare guztiak.
3. *Aurrezpen arduratsua, parte-hartzea eta gardentasuna*. Finantza alorreko bitartekaritzan aritzeko egitasmo batek beren aurrezkiak banku alternatibo baten zerbitzura jartzeko prest dauden pertsona eta erakundeen parte-hartze aktiboa behar du. Herritarren eta beren erakundeen esku egongo den banku-munduko tresna bat sortu behar dugu, eta, hortaz, gardentasuna eta parte-hartzea izango dira egitasmo honen ezaugarri nagusiak.
4. *Irabazi asmorik ez eta interes komuna*. Egitasmo honek ez du irabazi asmorik. Finantza-munduan eta bankuetan errentagarritasunari buruz dutena ez bezalakoa da guk dugun ikuspegia. Beharrezkoak izan arren, egitasmoaren bideragarritasun eraginkorra eta iraunkortasuna, errentagarritasuna eta irabazi ekonomikoak ez dira gure helburu nagusiak. Horregatik, soberakin ekonomikoetatik irabaziak lortzea ez da egitasmo honetako parte-hartzaileen motibazio ez bakarrik ez nagusia.

Gehiago jakiteko:

- www.fiare.org
FIARE fundazioa eta Banku Etikoen proiektua
- www.fets.org
Finantzazio Etiko eta Solidarioa
- www.coop57.coop
COOP57, SCCL: finantza-zerbitzu etiko eta solidarioak
- www.febea.org
Europako Finantza eta Banku Etiko eta Alternatiboen Federazioa
- www.inaise.org
Ekonomia Sozialeko Inbestitzaileen Nazioarteko Elkarte
- <http://money.socioeco.org>
Sozio-Ekonomia Solidarioaren Poloa (Diru Sozialak)
- www.red-bdt.org
Denbora Bankuetarako tresnak
- www.eiris.org
Inbertsio Etikoei buruzko Ikerketa Zerbitzuak

Bidezko merkataritza, ekonomia solidarioko merkatuak eta kontsumo arduratsua

Ekonomia solidarioak merkataritza-trukerako harreman bidezkoago eta orekatuagoak eratu nahi ditu herrien eta pertsonen artean. Merkataritza giza garapena lortzeko tresna ere izan daiteke, gaur egun gidatzen duten arauak errotik aldatu eta, jasaten duten bazterketa sozio-ekonomiko, sexual, lurraldeko nahiz bestelako bazterketengatik, desabantailan dauden ekoizleen zerbitzura jarriz gero.

Alor honetan, *bidezko merkataritzaren* aldeko nazioarteko mugimenduak gero eta garrantzi handiagoa du. Iparraldeko eta Hegoaldeko erakundeek osatzen dute mugimendu hori, eta nazioarteko merkataritzaren arau bidegabeak salatzea eta eraldatzea da bere helburua, batetik, eta Hegoaldeko herrietan baldintza kaskarrenetan bizi diren ekoizleei merkatuetan sartzeko aukera ematea, bestetik. Iparraldeko erakundeek, salaketa-lana eta herritarrak sentsibilizatzeko lana egiteaz gain, produktuak merkaturatzen lan egiten dute, haiek inportatuz, banatuz edo jendeari zuzenean salduz. Merkataritza-erakunde horiek errespetua, elkarrizketa eta gardentasuna dituzte printzipiotzat, baldintza duinak ematen dizkiete langileei, komunitate eta kolektibo baztertuenen garapen lokalean laguntzen dute (Hegoaldean bereziki), etab. Tarteko egiturak (inportatzaileak, banatzaileak eta dendak) beren marjinak murriztu eta produktuarentzat irabazi handiagoa uzteko prest dauden merkataritza-egitura bakarra da hau.

Bestalde, ekonomia solidarioko erakundeen produktu eta zerbitzuak hedatu, merkaturatu eta banatzeko sareak eratzten ari dira gure gizarteetan. *Ekonomia Solidarioko Merkatuak* dira horiek, bidezko merkataritzako produktuak merkaturatzen laguntzen duten sareak, enpresa solidarioak, gizarteratze-enpresak, nekazaritza ekologikokoak, gizarte-mugimendu alternatiboen hedabideak... Hau da, ekonomia sozial eta solidarioko erakundeek erantzukizun sozialeko, garapen iraunkorreko, berdintasuneko... irizpideekin sortutako produktu eta zerbitzu guztiak sartzen dira hemen. Ekonomia solidarioko erakundeen bideragarritasuna eta iraunkortasuna bultzatzea da halakoen helburua, eta kontsumo arduratsuen ikuspegitik betiko merkataritza-zirkuituen ordezkioak sortzea.

Kontsumoa da, hain zuzen ere, ekonomia solidarioak jorratzen duen alorretako bat. Lehenik eta behin, kontsumo neurrigabea jendearen helburu bihurtzen duen sistema salatzen da, gauzak pilatzeko nahia irizpide etiko eta sozialen ginetik jartzen dituelako sistema horrek. Sistema horrek kontsumismoa behar du bere egitura bidegabeari eutsi

ahal izateko. Egoera hori ikusita, ekonomia solidarioaren aldeko mugimenduak *kontsumo arduratsua* hedatzea proposatzen du, kontsumo etiko, ekologiko eta solidarioa bultzatuz, publizitate agresiboa eta gehiegizko eta alferrikako kontsumoa baztertuz, bidezko merkataritza eta Hegoaldeko produktuen kontsumoa bultzatuz, giza eskubideak, ingurumena nahiz eskubide sozialak urratzen dituzten enpresen aurkako boikotak proposatuz... Kontsumitzaileek, beren eguneroko ekintzen bidez, gure gizarteko ekoizpen- eta kontsumo-arauak aldatzen lagundu dezakete. Ekintza txiki horien eta aukeratzeko ahalmeneren bidez, kontsumitzeko ekintza gizartea eraldatzeko ekintza bihurtu dezakegu.

Jokabide hori erakunde publikoen aurrean beste bide bat aldarrikatzeko modua ere bada. Haiek erosten dituzten ondasunen eta kontratatzen dituzten zerbitzuen bidez, eragin handia dutelako ekonomian: erosketa publikoek Europar Batasuneko barne-produktu gordinaren % 15 inguru hartzen dute. Hortaz, kontsumitzailea den aldetik, herritarren aurrean erreferentzia den aldetik, eta legeak onartzen duen eskumena ikusita, administrazio publikoak irizpide etiko eta sozialak aplikatu behar ditu erosketa publikoak egiteko garaian. Horixe da ondasunak eta zerbitzuak erosteko administrazio-prozeduretan *klausula edo baldintza sozialak* sartzeko eskariaren oinarria. Kontratu publikoak egiteko prozesuetan irizpide sozial batzuk (bidezko merkataritza, emakumeen aldeko diskriminazio positiboa, ingurumena errespetatzea, gizarteratzea eta lan-munduratzeara...) sartzeara eskatzen da, enpresen erantzukizun soziala bultzatu eta ekonomia solidarioko erakundeak babesteko.

Gehiago jakiteko:

- www.comerciojusto.org
Espainiako Bidezko Merkataritzaren Koordinadora
- www.consumosolidario.org
Kontsumo Solidarioaren Sarea
- www.ifat.org
Nazioarteko Bidezko Merkataritzaren Elkartea
- www.mercasol.net
Trévol SMS, merkataritza sozialeko denda
- www.consumoresponsable.com
Andaluziako Kontsumo Arduratsuen Sarea
- www.opcions.org
Kontsumoari buruzko Ikerketa eta Informazio Zentroa
- www.consumehastamorir.org
Kontsumismoaren Kritika eta Kontrapublizitatea (Ekologistak Martxan)
- www.lamegi.org
Baldintza sozialak eta kontratu publikoak (Lamegi proiektua).

Herritarren parte-hartzea eta gizartea aldatzeko hezkuntza

Gure gizarte eta kulturaren, gauzak aldatzerik ez dagoela sentiarazten zaigu etengabe. Herritar gehienek artean zabaldua dauden balioak ez dira ekonomia solidarioko erakundeek edo beren jardunaren bitartez gaur egungo egoera bidegabea aldatu nahi duten herritar-mugimenduek aldarrikatzen dituzten horietatik. Etsipena eta ezintasuna areagotu egiten dira, gainera, ekonomia aldaezina eta jendearen kontrolarik kanpo dagoela dirudien esparru batean eskua sartu nahi izanez gero.

Hala ere, ekonomiaren alor desberdinetan —ekoizpena, finantzazioa, merkataritza eta kontsumoa— dauden alternatibak aurkeztu ditugu testu honetan. Halako esperientziak milaka daude munduan eta ekonomia, irizpide etiko eta solidarioetan oinarrituta, jendearen eta komunitateen zerbitzura ikusteko, ulertzeko eta eraikitzeko modu

desberdin bat islatzen dute. Azken batean, tresna eta harreman ekonomikoak beste modu batera ulertzea posible eta bideragarria ez ezik, beharrezkoa ere badela erakutsi nahi du ekonomia solidarioak.

Eta esparru horretan esperimenduak egiten ahalegindu baino, herritarren boterea bultzatu nahi du, jendeak gizartean jakinaren gainean parte hartzea bultzatu nahi du, gizartea aldatzen lagunduko duten balio eta jarrerak hedatu nahi ditu. Aldaketa hori egunero-egunero lortzen ari gara gure esperientzia handi eta txikiekin. Horregatik, ekonomia solidarioak garrantzi handia ematen dio herritarrek hezi eta sentsibilizatzeari. Ikuspegi hezitzaile batetik bakarrik lortuko dugu kontzientziak eta jarrerak aldatzea, ekonomia alternatiboko esperientzia berriak sortzea, jendearen esku dagoen mundu bidezkoagoa, humanoagoa eta iraunkorragoa sortzea. Herri eta pertsona guztiek duintasunez eta zoriontsu bizitzeko duten beharrari erantzuten dion mundua, alegia.

¹ "Economía Solidaria", in G. CELORIO eta A. LÓPEZ DE MUNIAIN (Koord.): *Diccionario de Educación para el Desarrollo*. Hegoa arg., Bilbo, 2007. 107-113. or.

Artikulu hau copyleft Creative Commons lizentziarekin argitaratu da (merkatuz kanpoko onarpena, partekatze berdina 2.5). Lan hau kopia, banatzea eta zabaltzea dago, merkatarizatik kanpoko xedeetarako baldin bada. Testua aldatu edo testu honetatik beste testu bat sortzen bada, hemengoa bezalako lizentzia batekin bakarrik banatu daiteke. Lizentzia osoa hemen: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/2.5/es>.

Carlos Askunze, REAS Euskadi (Red de Economía Alternativa y Solidaria) · [caskunze@reaseuskadi.net]